

BALOREZKO PROPOSAMENA

Ze beharri erantzuten diogu? eta zerk bereizten gaitu besteekiko lehian?

Gure enpresaren helburu nagusia izango da emakume* edo arriskuan dauden pertsonen babesaren sustatzea autodefentsarako objektuen bidez. Gaur egungo gizartean berdintasunaren bidean aurrera pausoak eman diren arren, oraindik ez gara parekidetasun oso batean bizi. Pertsona batzuk oraindik arriskuan sentitzen dira, horregatik gure produktuak beharrezkoak dira.

Gainera, kontzientziario lan bat burutuko dugu, eskainiko ditugun **tailerren bidez**.

Gure enpresa erabakiko duen arrazoiak ugariak dira. Alde batetik kuantitatiboak, izan ere, autodefentsarako ekoiztuko ditugun objektuak, **3D makinaren** bitartez inprimatuko ditugunez, pieza bakoitzaren kostua oso urria izango da, beraz salmenta orduan, merke salduko ditugu objektuak. Hori horrela, ahalmen ekonomiko urria duten emakume*ek ere objektuak eskuratzeko aukera izango dute, irismen handia izanik.

Kualitatiboki ere, balore gehigarri bat izango dute gure produktuek. Izan ere, autodefentsarako balio duten **giltzarrapekoek** diseinu ezberdinak izango dituzte, horrela, gustu ezberdinetara egokitu ahal izango da, eta bezero bakoitzak gehien gustuko duen diseinua eskuratu ahal izango du, pertsonalizatuz objektua bera bakoitzaren gustuetara. Horrez gain, egunerokoan erabili ahal ditugun objektuak egokituz, erabilerrazak izango direnez, ez du inongo arazorik suposatuko erraz eta eroso erabili ahal izateko.

Berritasuna, gure produktuak badu berritasun kuttu bat, guk geuk sorturiko objektuak dira, eta autodefentsarako objektu hauek ez daude oso gizarteratuta. emakume* askorentzako berritasuna izango da horrelako produktu bat izatea.

Gainera gure objektuak soinean eramateko oso errazak dira, tamaina txikia izanda edozein lekutan eraman dezakezulako.

Esan bezala, gure produktua aukeratzeko arrazoiak anitzak dira, prezio apala, objektu berritzaileak, eta bakoitzaren gustuetara pertsonalizatzeko aukera, diseinu ezberdinen proposamenarekin. Erabiltzeko oso errazak diren objektuak dira, eta tokian bertan ekoitziak. Eskuratzeko orduan, lokalean bertan hartzeko aukera izango da, baina baita internet bidez eskariak egiteko aukera ere. Horrela, emakumeek egunerokotasunean pairatzen dituzten arrisku egoerei aurre egiteko prestuago sentituko dira, horrela haien arrisku egoera behintzat apur bat murriztuz.

